

# Itaun-Erantzunak

*Erantzule jauna: Nere emazte ta seme-alabak kristau zintzoak dira: beren mezu-entzute ta goiz-arratsoko ere. Oiek bezelako sinismena ba'nu, ni ere milla aldiz zoriontsuago izango nintzuketla iruditzen zait. Baiña, zoritxarrez, ez det sinismenik. Gaztetan, bai sinisten nun, baiña geroztik ez dakit zer gertatu dan nitaz. Aspaldiko urte auetan ez naiz elizan sartu, otoitz egiteari zero utzi nion, erlijioke gauzak ia nazka ematen didatela dirudi. Eta, bestetik, kezka beteta, pakerik gabe, bizi naiz. Galduko sinismen ori berriz iritxi al ba'nu...! Baiña zer egin ote nezake nik orretarako? Kondenatu bearra izango ote naiz?*

(A. tar G.)

Kondenatu bearra ote zeran-diostazu? Galdera beltza, izugarria, egiten didazu benetan! Inperuko atean barna zankoa sartuta eztaukagun artean, salbatzeko nsterik ez dugu ino-laz galdu bear. Zuri gertatzen zaizun oker ori, beste askori ere gertatu izan zaie, zoritxarrez, mundu zabal onetan. Sinismen bizi-bizidun kristau zintzoen artean bizi eta, alaz ere, norberak sinismenik ez. Gaztetan, bearbada, kristau fedetsu izandakoak, zartzaroan, sinisterik gabe, Jaungoikoa-gandik saiestuta ageri oi dira. Au tamala! Zertatik ote datorkie al-dakuntza zorigaiztoko ta negargarri ori? Gaitz orren sustraia buruan bai-ño biotzean ziurrago arkitu genezake, noski, goien hater, Iaiño beltzez

estalizirik dagoanean, argi gutxi bidaliko digu eguzkiak, ezta diridaririk emango ere hurriñez edo autsez ezainduta dagon ispilluak. Aurrena, biotzak garbi bear du egon, adimeneko begiak lausotu ta fedearen dirdaira ikusi ezinik geratzea nai ezpaldin ba'dugu. Garbi dezagun biotza arrokeri ta lasakerizko kutsu gaitzotatik eta orduan, bai, oso errez izango zaigu sinistea. Apaltasuna ta garbitasuna, bi gauza oiek, bear dira, beraz, sinismen sendo ta errotsua idukitzeko: Apaltasuna (umiltasuna). Jaungoikoak iragarri ta Eliza Amak irakasten diguna, geroz burua makurturik, txintik atera gabe, itxuitxuan, onartzeko; garbitasuna berriz, biotzeko naikeri ta grina gaitzotak bide zuzenetik okerrarazi ez gaitzaten. Era orretan, bi gaitz oietatik here biotza zaitzen duan kristauak ez du sinismena gaitzeko arriskurik.

Demagun, ordea, zuk —orrela baitiñozu zorerrek— sinismen ori zero galdu duzula. Zer egin zoritxar aundi ortan? Zure betiko salbakuntzar etsi bear al duzu? Bai zera! Norberaren errez izan ezik, ezta inor kondenatzen. Argia begien aurtean euki eta, alaz ere, argi ori ez ikustearren, begiak itxita bizi nai dutenak: Jaungoikoa bear bezela ezagututa eukita, alaz ere, narda egiten diotenak edo Berarengandik igesi dabiltenak: egindako pekatuetaz garbai edo damutzerik nai ezutenak: Auek, bai, betiko oandamendira dijoaz: heren oldez, ordea, beren bo-



anaienganako bekaizkeri ta gorrotoa? Zergatik anaiak iltzeko arma berriak asmatzen beti? Naiko guda egin dute gizakumeak; geiegi dira sasoirik onenean il diran gazte taldeak. Gudan ildakuentzako illobi geiegi agiri dira lur gainean. Illobi oiek ozenki aldarrikatzen digute, badala ordua gure artean pakeak egiteko, badala batasunera ta anaitasunera biurtzeko garaia.

Zuzentza oiñarriztat eta maitasuna sustraitzat dun batasun onetara laterriak (nazioak) eltzen ez diran

bitartean, beti egongo gera nunbait guda sortzeko arrisku bildurgarrian. Guda, burruka berri bat sortzen badala, ostera —Jaungoikoak ez dezala garaiturik geratuko munduan, dana ondatuko bait-da, dana austuko.

Laterrietako agintarieri, batez ere, erregutzen die, begiratu dezatela ongi beren epaille dan Jaungoikoaren aurrean, zer egiten duten; eta alegin guztiak egin ditzatela batasun ori lortzeko.

ALDARAITZ

## ITAUN-ERANTZUNAK

Erantzule jaun ori: Inoz baño umore txarragoaz dabilkigu egunokaz gure aitaita. Ara, zergaitik: Lengo domeka baten, jaiero legez, Meza nagusia entzun ondoren, tabernan sartu ei-zun musalditxo bat egiteko asmoz; eta bere lagunakin musean ziarduala, bertantxe agertu ei-zan kanpotar gazte barritsu ta arroputz bat (abade-edo-prallegei izandakoren bat, antza, gure aitaitak diñoanez). Aren berba egin bearra, seguru! Berak dana ekialakoan edo, ez ei-entsan ezeri ikutu barik lagaten. Beste auturen artean, erlejiñoko gauzai be ekin ei-entsen. Esate baterako: Etzala egia Jaungoikoak mundu an sei egunen barruan egin ebana; Adan, gure lenengo aitagandik, Kristo gure Jaunaren etorrera edo jaiotzara arte, askok diñoen legez, lau edo host milla urte bakarrik igaro zireala esatea, ez jakintasuna besterik etzala ta abar... Mutil lotsagabe orren esanak gordiñegiak izan ziran gure aitaitaren belarrientzat eta, orregaitik, guztiz sututa biurtu yakun beran etxera. Liburu Santuen eta gure fedearen kontra berba egin ei-eban mutil orrek, gure aitaitak diñoanez.

Zer deritxazu zuk? Aitaita ta ni zeure erantzunaren zain geratzen gaiatuz.

(O. tar MALEN)

Ba-nekian nik taberna edo ardan-togi orreik berebiziko lekuak zirea-

na tentelkeriak esan eta entzuteko. Ardaoak aparteko dozia dauka, euki be, gizonen naiz emakumeen oñak astunduz batera, buru ariada ta miiña bizkortzeko. Baña, dirudianez, beti ezta orrela jasoten. Zuk, Malen, zeure eskutitz orretan aitatu dantazuzan gauza orreik, eztera tentelkeri utsak, ezta urrik emon be. Aspaldion, gizon trebe ta jakintsuen buru ta ezpanetan dabiltzan guiak dira orreik. Ez neuke beruz nik, geiñoko barik (parkatu dagistala zure aitaitak) barritsu edo kakolatzat joko mutil ori. Aizabat gixiñgo, erajetzat.

Egia! Eskritura Santuko lenengo liburu (Genesis) geure eskutian artzen da'dogu, auzer itakurri gungira liburu orren asieran: Jaungoikoak sei egunetan sortu ebala mundua (zeruak eta lurra) eta zazpigarren egunean opoz egin edo atsedena artu ebala. Moises'ek bere liburu onetan diñoaskun an itzez itz artu ezlerri jakina. Jaungoikoak bere eginiñan aundia aste baten barruan burutu

ebala siñetsi bearko geunke. Baña egun orreik, gure oraingo ogetalau ordudun egunen neurrira artu bear ete-doguz, ala egun izen orregaz epe edo aldi luzeagoren bat ez ete-yaku adierazoten? Aburu edo eretxi bi orreitatik zein ete-da bidezkoago, ziurrago, egokiago: lenengoa ala bigarrena? Bigarrena, noski. Edozelan be, gure Eleiza Ama Denaak ezta usku ezer ebatzi gai orretzaz; ezka goz, beraz, beartuta sei egun orreik, egiazko egunak, ogetalau orduko egunak, izan zircala siñisteraño.

Gaurko jakintsuak besterik uste dabe: Jaungoikoak, izaki guztiak, edo obeto esateko, izaki guztien geia (materia) nastean eta osoan, bat-batera, irazan edo sortu ebala; eta gero, astiro-astiro ta apurka-apurka, izaki orreik bata besteagandik berezituaz, bakotxa bere izakerara eldu zircala. Egilleak ipiñi eutsoczan neurri ta legepean. Orrela, mundua, aldiaren aldiz, osotoro ornidu ta gertau zanean, bizidun izakiai (bedar,

zugatz, egazti, arrain eta gure mundu tiatako abereai, eta azkenez, gure mundu (ri) izatea emon eutsen. Orrelaxe ete zala dirudi munduaren eta besterik izakien sorrera. Baña zenbat igaro ete zan bitartean? Ori izango dautsuegu erantzun, ta ez beste inork. Jaungoikoak bakarrik daki.

Adan'engandik Kristo'ganako luzeagoa izan zala esatea be ete-berba te oker berba egitea danik. Ezin gogike ukatu, ia oraintsurarte, gure ziurtzat lez euki izan dabela, eta askok lautik bost milla urte epe ori; gaur, ostera, kokolo urtekoak eztiran zenbait jakintsuak epe ori eun edo berreun milla urte luzatzen dabe: baita millaka urte dietaraño be, norbaitzuk. Dana dala Idazteunak (Eskritura Santuak), ta Eleiza Amak, eztiñoskue ezer orretzaz. Ixillik egotea obe dogu beraz.

(ERANTZUKA)

